
2.4. TXERTOEN ERREGISTROAK

Txertoa eman ondoren, beti erregistratu behar da txertoa hartu duen pertsonaren **historia klinikoan**, eta txertoa hartu ondoren pertsonari ematen zaion **txertaketa-txartel edo -agirian**.

BIZITZA GUZTIAN ZEHAR DA BALIOZKOA TXERTAKETA-HISTORIA, ETA PERTSONAK BIZITZAKO ETAPA GUZTIAN HARTZEN DITUEN TXERTO GUZTIAK AGERI BEHAR DUTE HISTORIA HORRETAN: HAURTZAROKOAK, ESKOLAKOAK, LAN-GARAIKOAK, ETAB.

Oinarrizko prozedura da txertoaren erregistroa, hauek egiteko:

- Pertsona bakoitzaren txertaketa-historia jakiteko.
- Txertoen estalduren gaineko informazioa eskuratzeko.
- Txertorik hartu gabeko edo txerto guztiak hartu gabeko pertsonak identifikatzeko.
- Txertaketa-programen eragina ebaluatzeko.
- Informazioa lortzea agerraldiak kontrolatzeko.

Txertoak egoki kudeatzeko informazioa lortzea. Informazio hau jaso behar du txertoaren erregistroak:

- Txertoa hartzen duen pertsonaren izen-abizenak.
- Jaioteguna.
- Sexua.
- Txertoa zer zentrotan eman den.
- Helbidea.
- Txertoa eman duen profesionalaren elkargo-zenbakia.
- Txertoa eman den administrazio data .
- Txerto mota (antigenoak, izen komertziala eta laborategia).
- Dosi kopurua.
- Lotea.
- Iraungitze data

Txertoen gaineko informazioaren erregistroa OSABIDEn

Paziente baten txertaketa-informazio guztia sistematikoki erregistratu behar da, Osabideren formularioaren bidez. Hori da pertsona baten txertaketa-datu guztiak sartzeko bidea, eta pertsona horren txertaketa-historia osoa jaso behar du, bai gure erkidegoko sistema publikoan emandako txertoei dagokienez, bai beste erkidego batzuetan edo zentro pribatuetan emandako txertoei dagokienez. Txertaketa-txarteletik edo kartillatik abiatuta, bere txertaketa-historia Osabiden erregistratuta dagoen egiazta daiteke; hala ez bada, aurkezten dituen txertaketa-datu guztiak osatu behar ditugu historian, agiri bidez justifikatuta.

Osabideko formularioan beti erregistratuko dira TXERTOIA eta TXERTOAREN LOTEA.

Txertoak erregistratzeko hainbat formulario daude, txertaketa-motaren arabera:



- Helduen txertaketa egokitzea
- Atzerritarren txertoen erregistroa
- Txertoen erregistroa. 1955-1980 urteetan jaiotakoak
- Txertoen erregistroa. 1981-1995 urteetan jaiotakoak
- Txertoen erregistroa. 1996-1999 urteetan jaiotakoak
- Txertoen erregistroa. 2000-2005 urteetan jaiotakoak
- Txertoen erregistroa. 2006-2018 urteetan jaiotakoak
- Heldu osasuntsuen txertaketa
- Arrisku taldeen txertaketa
- Ume goiztiarren txertaketa
- Haurren txertaketa
- Asplenia duten umeen txertaketa
- Bidaiarientzako txertoak

-
- Gripe / pneumokokoaren aurkako txertoa
 - Haurdunaldiko txertaketa
 - Tetanosaren aurkako txertaketa

- COVID-19 txertoa

- Herpes zoster txertoa

Formulario bakoitzean egoera horietako bakoitzean aurki daitezkeen txertoak daude. Dagokiona aukeratu behar da beti.

Erregistro bakoitzean adierazi behar diren datuak hauek dira:

TXERTAKETA ARRAZOIA: txertaketa aurrera eramateko arrazoia. Bost aukera daude:

- **EGUTEGIA:** haurren eta helduen txertaketa-egutegiaren parte den txerto bat erregistratzen denean (ez dira sartzen haurdunaldian ematen diren txertoak, baina bai egutegia eguneratzeko prozesuan).
- **ARRISKU-BALDINTZA:** eman beharreko txertoa arrisku-baldintza bat izateagatik denean aukeratuko da hau (haurdunaldia denean izan ezik, orduan hurrengo aukeratuko baita).
- **HAURDUNALDIA:** aukera hau erabiltzen da haurdun egoteagatik emandako edozein txerto erregistratzeko (dTpa, gripea, COVID-19).
- **NAZIOARTEKO BIDAIA:** aukera hau gaixotasun horren intzidentzia handiko herrialde batera bidaiatzen delako emandako txertoentzat da.
- **EGUTEGITIK KANPO:** gomendio ofizialetan sartuta ez dauden eta administratuak izan diren txerto guztiak.

TXERTOAK JARTZEKO LEKUA: Erregistratzen ari garen txertoa non jarri den adierazten du. Hiru aukera ditu:

- **EAE:** txertoa gure autonomia-erkidegoko txertaketa-zentroren batean eman denean. Emateko unean erregistratzen diren txertoetarako erabiltzen da, bai eta txertaketa-dokumentu batetik abiatuta alde aurretik emandako txertoak erregistratzeko ere.
- **ATZERRIA:** txertoa Espainia ez den beste herrialde batean eman denean. Pertsonak emandako dokumentutik abiatuta txertoak erregistratzen ditugunean erabiltzen da.
- **BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUK:** txertoa gurea ez den beste autonomia-erkidego batean eman denean. Pertsonak emandako dokumentutik abiatuta txertoak erregistratzen ditugunean erabiltzen da.

Motivo de vacunación: Lugar de vacunación:

TXERTO BAKOITZERAKO, eman beharreko dosia, txertoaren izen komertziala eta lotea erregistratu behar dira beti.

Vacuna Difteria-Tétanos-Tosferina acelular (dTpa):

Lote:

Fecha de caducidad:

Nombre comercial:

Motivo NO vacunación:

Txertoa administratzen ez denean, **TXERTOAZ EZ JARTZEKO ARRAZOIA** erregistratu behar da. Hauek dira egoerak:

- **UKO EGITEA:** txertoa jasotzeko berariazko ezezkoa dagoenean
- **KONTRAINDIKATUTA:** txertoa ematea modu iraunkorrean kontraindikatzeko duen baldintza mediko bat dagoenean.
- **IMMUNITATE NATURALA:** immunitate iraunkorra eragiten duen gaixotasun bat igaro bada eta txerto hori jaso beharrik ez badago.

Txerto baten dosi bera behin bakarrik erregistratu behar du profesional bakar batek (txertoa administratzen duenak).

Formularioek aukera ematen dute aurreko erregistroak ikusi edo ez ikusteko.

Formularios

Osakidetzak Prueba pediatra, PRUEBA PRUEBA Variables Clínicas

Mujer 6 años 8 meses

NUEVO - Vacunación en Grupos de Riesgo


ES | EU

Aurreko dosien ebolutiboak ikusteko aukera ere ematen du.

Helduen txertaketa osasuntsuaren eta haurren txertaketaren inprimakiek hiru zati dituzte:

- Indarrean dagoen egutegiaren txertaketa
- Egutegia egokitzeko txertoak
- Egutegitik kanpo ematen diren txertoak.

"Arrisku-taldearen txertaketa" inprimakian, zein arriskugatik txertatzen den aukeratu behar da beti.



Txertaketa aurrekariak ikusteko:

